Euskal sozialismoaren ibilbidean berezko ezaugarririk izan bada, gizon-emakumeen funtsezko eskubideak etengabe defendatzea izan da eta, bereziki, demokrazia eta askatasuna. Beti aurreneko lerroan ekin diogu diktaduraren, faxismoaren eta terrorismoaren aurka, sozialista asko erail dituzte, beste askok atentatuak jasan dituzte, eta biktima gara bai askatasuna defendatzeagatik, bai eta ETAren helburu totalitarioaren aurka jarduteagatik ere. Bada, zilegitasun horrexek bultzaturik defendatu egiten dugu gure gobernuaren politika, hots, Espainiako Gobernuaren politika, terrorismoari bukaera ematea eta bakea lortzea helburu duena.

Euskadiko herriarrek jakin badakite euskal sozialismoa bakea lortzeko gakoa dela. Gure historiagatik eta askatasunaren alde egin dugun etengabeko lanagatik. Hitzarmenerako eta adostasunerako dugun berezko joeragatik. Euskadiko eta Espainiako politikan gaur egun ardatza izateagatik. Hori guztia dela eta, ondoko agiri politiko hau aurkezten dugu, gaur egun politikan dagoen eztabaidari gure ekarpena egiteko.

Ez dugu agiria aurkeztu, egia esan, testuinguru politikoari buruz alferreko gogoetetan galtzeko, ezta besteen politikak kritikatzeko ere; baizik eta baketzeari buruzko gure proposamenak egunerautu eta argitzeko. Azken buruan, agiriak funtsean xede erabilgarria du, gure buruari atsegina emateko ikuspegietatik urrun.

## BAKE POLITIKARAKO PROPOSAMENAK

Ez da batere lan zaila euskal sozialismoak baketze eta normalizazio kontuetan dituen oinarriak laburbiltzea. Izan ere, demokraziaren defentsan aurreneko lerroan ekiteaz gain, uneoro ere gure gogoetak eta bake proposamenak agerian egon dira etengabe. Alde horretatik, ez da sekulan sozialistok parte hartu gabeko akordiorik eta adostasunik izan gai horri dagokionez. Batasun demokratikoari lotuta egon diren orain arteko hitzarmen guztiak bultzatu ditugu, bai eta haietan parte hartu ere. Orain, besterik gabe, gure urteetako ekarpen teorikoa eta politikoa bildu eta ingurumari berrietara moldatu nahi dugu.

Ez dago baketzeari buruzko egungo eztabaidan gure egiten ez dugun gairik: mahaia, adostasuna, aniztasuna, elkarritzetan oinarritutako amaiera e.a. Hori guztia gure agirietan dago eta gure politikako osagaiak dira, terrorismoaren aurkako irmotasun demokratikoarekin batera. Euskal sozialistok ez dugu gure ibilbidea zuzendu behar, ezta hari uko egin behar ere. Gai honetan koherente izan gara eta trantsizio osoan oinarri berberak izan ditugu. Eta etorkizunean ere horrela izango da bake prozesua hasten denean.

### 1.1 HASIERA ETA BUKAERA. INDARKERIA AMAITZEA

Sozialistontzat, elkarbizitza demokratikoa errotzeko akordioak bilatzea izan da gure herrirako helburu estrategikoa, eta xede horrek gidatu du, gidatu duenez, gure ekintza politikoa azken urteotan guzietan. Horrela, Euskadi normaltzeko eta baketzeko hitzarmenaren bultzatzaile erabakigarriak izan ginen, hots, *Ajuria Eneako Ituna* esaten zaiona, 1988ko urtarrilekoa. Gaur egun, guretzat, oraindik ere guztiz baliagarriak dira itun horretako oinarriak eta edukiak. Ondotik, ekimena hartu genuen 2000ko abenduko *Askatasunen aldeko eta terrorismoaren aurkako Ituna* sinatzeko. Azkenik, sozialistok bultzatutako

azken ekimena aipatzeagatik, lerrotaera ekarriko dugu Diputatuen Kongresuak 2005eko maiatzean onetsi zuen Ebazpena.

Lan honen helburua politika berria gidatuko duten oinarriak argitu eta zehaztea izanik, komeni da hasieratik beretik argi uztea aldez aurretik indarkeria terrorista amaitza ezinbesteko baldintza dela -“sine qua non” baldintza- aldi berriaren aurrean gaudela esateko, baketze eta normalizazio prozesu baten aurrean gaudela adierazteko, alegia.

Hori hasiera izateaz gain, prozesu osorako bermea ere bada, noski. Halakorik ez betetzeak prozesua berehalakoan eten eta zapuztuko bailuke, jakina. Beraz, hori irmotasunez argi utzi beharra dago, iraganeko eskamentua ikasbide gertatzen baita, eta alderdi batzuen jarrera zalantzakorrak ere bai: hortaz, indarkeria amaitza aldez aurreko baldintza da, eta alderdi politikoek esango dute baldintzarik eta bermerik ote dagoen, terrorismoarentzako elkarritzeta bidezko amaiera emateari ekiteko.

## **1.2 IRAGANA ETA ETORKIZUNA. BIKTIMAK ETA ADISKIDETZEA.**

Etorkizuneko bakea eta normalizazioa ezin dira ahanzturan oinarritu, herri honetan indarkeriaren ondorioz gertatu denaren oroimenean baizik. Alde horretatik, indarkeriak ekarri duenaren adierazpena dira terrorismoaren biktimak, askatasun sistemari zuzeneko erasoa egin baitzaio, bai eta huraxe sostengatzen duen herritartasun eskubideari ere.

Ez dugu ahaztu behar biktimak terrorismoaren jomuga izan direla, ez zetozelako bat ETAK gure herriari, horrenbeste urtetan, ezarri nahi izan zion proiektu uniforme eta totalitariorarekin edo, euskal gizartearen askatasunak eta anitzasuna aurreneko lerroan defendatzeagatik. Beraz, pentsaezina da bakezko etorkizuna jorratzea, gogoan ez badauzkagu biktimen oroimena, beraiek pairatutako oinazea, beraien aldarrikapenak eta, baita ere, eztabaidea politikoan parte hartzeko duten eskubidea, iazko maiatzaren 18an Diputatuen

Kongresuak onetsi zuen Ebazpenaren 4. puntuak zehaztu bezalaxe. Honatx zer dioen hitzez hitz:

*“Gure elkartasuna erakusten diegu terrorismoaren biktimo. Iza ere, biktimak dira ETAren terrorismoak sorrarazi duen sufrimenduaren eta bidegabekeria basatiaren oroimena, oroitzapena, egun sufrimendu hartaz dugun egiaztapena, egiaztapen iraunkorra, alegia. Jakin badakigu demokraziak ezin izango diela itzuli galdu dutena, baina prest gaude Spainiako gizartearen aitorpena eta harrera har dezaten. Terrorismoaren Biktimo Elkartasuna arautzen duen Legea aitorpen moral eta materialaren aho bateko adierazpen kualifikatua izan da. Gure eginbeharrak, ordea, ez dira bukatu. Ahalegindu behar dugu haien oroimena gordezen, eguneroko harrera-bide iraunkorra ezartzen. Beren laguntzak beharrezkoa izaten jarraitzen du Spainiako gizartearentzat terrorismoaren kontrako borrokan. Iza ere, biktimak hoherenak dira horren sufrimendu handia eragin dietenek hondatu nahi dituzten elkarbitzaren eta elkarrekiko begiramenaren baloreak defendatzeko”.*

### **1.3 BAKETZEA**

Hauxe dio Ajuria Eneako Itunaren 10. puntuak:

*“Bortizkeriaren amaiera elkarriketaturako baldintza egokiak sumatzen badira, hau da, bortizkeriari uko egiteko egiazko gogoa eta jarrera garbia sumatzen badira, Estatuko agintarien eta bortizkeriari uko egiteko prest dauden arteko elkarriketaren alde gaude. Jakina, bazterezina den irizpide demokratikoa errespetatuz betiere, hau da, herriak aukeratutako ordezkarien esku utziz auzi politikoen konponbidea.”*

Lerroalde horretan ageri dira bakerako eta normalizaziorako sozialisten politika gidatzen duten funtsezko oinarriak, eta oinarri horiek jasoak daude hala 2000ko abenduko Askatasunaren aldeko eta terrorismoaren kontrako Itunean nola 2005eko maiatzeko Diputatuen Kongresuaren Ebazpenean.

Beraz, Ajuria Eneako itunak desberdintasun argia ezarri zuen baketzearen eta normalizazioaren artean. Horren oinarrian gauza eztabaideazin bat zegoen, erabateko lehentasuna zuena, diferentzia politiko ororen gainetik dagoen adostasunerako arrazoi objektiboa, hots, terrorismoa errotik erauztea zen...

*“...erakunde eta indar demokratiko guztieng elkintzaren funtsezko helburu bateratua”.*

Horrexegatik, hain zuzen ere, Ajuria Eneako itunak hasieratik argi eta garbi utzi zuen Euskadiko arazo politikoak ez direla

*“...bortizkeria terroristari amaiera emateko baldintza, ordain edo trukagai gisa hartu behar, alegia, horrek gure gizartean ez du inolako zuribiderik eta”.*

Gogoeta horiek indar osoa izaten jarraitzen dute eta laburbildu litezke azken bolada hauetan behin eta berriz aipatu den ideia batean, zorionez orokorrean onartzen hasia den ideia batean: bakeak ez du ordain politikotik eta ezin da, beraz, alderdien proiektu politikoekin nahasi.

#### **1.4 NORMALIZAZIOA**

Dena dela, indarkeria terroristarekin batera eta askotan ez dagokion zilegitasuna emanez, Euskadin normalizazio politikoko arazoa egon da, behar adinako adostasunik ez delako izan marko juridikoari eta politikoari buruz, ezta errespetatu beharreko joko arauei buruz ere.

Identitate pertzepzio eta sentimendu desberdinek ekarri dute adostasunik eza, desberdinak baitira Euskadiko berezitasuna, bere autogobernurako borondatea eta Espainia osoarekiko harremanak ikusteko eta bizitzeko moduak.

Esan daiteke normalizazioaren arazoa funtsean politikoa dela, politikan dugun aniztasunari erabat lotua dagoelako eta, horrenbestez, gure herriaren ordezkaritza duten alderdien arteko eztabaidea eta akordioen bidez konpondu behar da. Terrorismoa irautearen arazoa, aldiz, euskal politikaren egiazko gaitza da, erabaki eta eztabaidea politikoak baldintzatzeko saiakera bidegabea eta denok gure egin dugun askatasunen eta joko arau demokratikoen sistematik kanpo dago.

Beraz, bi prozesuri aurre egin behar diegu, bai eta lehentasunak ezarrita bideratu behar ere: lehenik eta behin, indarkeria amaitzea eta, ondotik, indar politikoen arteko elkarrizketa, terrorismoaren interferentziarik gabe, arazo politikoak konpontzeko. Bestela esanik, soilik terrorismoa amaitzean izanen du zentzurik eta arrakasta aukerarik elkarrizketa politikoak, eta soilik egoera horretan hartuko ditu bere baitan (elkarrizketa politiko horrek) euskal gizartearren ordezkaritza duten indar guztiak.

## 1.5 **BI MAHAIAK**

1999ko abenduan, Ajuria Eneako Ituna garatzeko xedez estrategiari buruz egin genuen agirian, euskal sozialistok jarrera hau utzi genuen jadanik ezarrita:

*“Nahiz-eta Ajuria Eneako itunean aurrera jo eta sakondu beharra dagoen, gure iritziz, akordio horrek zuzen heldu zien kontu horiei guztiei adostasunean oinarriturik. Horrela, uste dugu baliagarria izaten jarraitzen duela akordio hartan baketzearen eta normalizazioaren artean ezarritako desberdintasunak –eta ez dezagun ahaztu Euskadi normatzeko eta*

*baketzeko hitzarmena deitzen zela-, bai eta harten elkarritzetari buruz esaten zenak ere.*

*Auria Eneako Itunaren 10. puntuak berak dakar desberdintasun hori eta honela dio: “Bortizkeriaren amaiera elkarritzeturako baldintza egokiak sumatzen badira... Estatuko agintarien eta bortizkeriari uko egiteko prest dauden arteko elkarritzetaren alde gaude. Jakina, bazterezina den irizpide demokratikoa errespetatuz betiere, hau da, herriak aukeratutako ordezkarien esku utziz auzi politikoen konponbidea.”*

*Horrela, Auria Eneako Itunaren 10. puntuaren elkarritzeta bidezko amaierak bi elkarritzeta agertoki ditu, argi eta garbi desberdinduak:*

- a) Kontu politikorik ukitu ez dezakeen Espainiako Gobernuaren eta ETAren arteko elkarritzeta.
- b) Kontu politikoei buruzko elkarritzeta, eta hori soilik herritarren legezko ordezkariei dagokie.

*PSE-EEren iritziz, bi elkarritzeta agertoki horiek ez dira nahasi behar eta, aldi berean, ez diote elkarri baldintzatu behar”.*

## **1.6 DIPUTATUEN KONGRESUAREN EBAZPENA**

Bi elkarritzeta prozesu horiek irekitzea ahalbidetzen duten inguruabarrak argi geratu dira Talde Sozialistaren eskariz Diputatuen Kongresuak iazko maiatzaren 18an onetsitako Ebazpen harten. Ebazpen horrek Ajuria Eneako Ituna berrartu eta aipatu dugun negoziaketa eredu berretsi du. Izan ere, hara zer dioen hitzez hitz bere bigarren puntuak:

*“... uste osoa dugu politikak indarkeriari amaiera ematen lagundi dezakeela eta behar duela. Hori dela eta, berresten dugu elkarritzeta bidez indarkeria amaitzeko baldintza egokiak baldin badaude, horren oinarrian indarkeria amaitzeko*

*borondate argia baldin badago eta uste oso horretara heltzeko zalantzak gabeko jarrerak agertzen baldin badituzte, sostengua adierazten diegu Estatuko aginte eskudunen eta indarkeria uztea erabakitzentz dutenen arteko elkarritzketa prozesuei, betiere uneoro funtsezko oinarri demokratiko hau errespetatuta, hots, kontu politikoak soilik herritarren borondatearen legezko ordezkarien artean moldatu behar dira”.*

## II

### **KONTZEPTUAK ARGITU BEHARRA. IRAGANEKO OKERRAK**

Diputatuen Kongresuak onetsitako Ebazpena garrantzitsua da ez soilik ezarri duen elkarrizketa metodoagatik, baita barne hartu dituen oinarriengatik ere, alderdi demokratiko guztiak -salbuespenik gabe- bere egin ditzaketenak. Horien artean, oinari hauek daude: ETA sekulan baino ahulago dago zuzenbidezko Estatuaren indarragatik; demokraziak ez du sekulan terrorismoaren xantaia onartuko; indarkeria eta politika demokratikoa bateraezinak dira; edota indarkeria amaitzeak ez du ordain politikorik... batzuk aipatzeagatik.

Oinari horiek bake eta normalizazio prozesuaren osagai dira eta komeni da horiek guztiak kontuan hartzea. Bada, oinari horiek gidaturik, errazagoa gertatuko zaigu ez okertzea eta iraganeko akatsik berriro ez egitea. Gobernatzen duen nazionalismoaren erradikaltasunak bazkatutako okerrak dira, era interesatuan nahasi baitu bakea halako proiektu alderdikoi jakin batekin, aldebakartasunez eta adostasunik gabe euskal gizarte osoari inposatu nahi izan zaiona.

Horregatik, garrantzitsua da aurrez argi eta garbi adieraztea zer ez den bakea, berriro iraganeko polemika berberetan nahaspilatu ez gaitezen, iragana behin betiko atzean utzi nahi dugulako.

- Bakea ez da eta ezin da izan proiektu nazionalista gizarte anitzari inposatzearen ondorio.
- Bakea ez da esparruei, erabakiei, lurraldetasunei, erabakimena duten subjektu politikoei eta Euskadiko izatearen edo ez izatearen bestelako espekulazioei buruzko nahaste-borrastean galtzea.
- Bakea ez da Espainiako Konstituzioaz ahaztea, gure demokraziaren eta askatasun sistemaren oinarria baita.
- Bakea ez da elkarbizitzarako eta gure herria erkidego politiko gisa eratzeko itun hura - Gernikako Estatutua- errotik zokoratzea, itun bikaina izan

- baitzen eta, gaur egun, oraindik ere bada: izan ere, Estatutuak Euskadiri eman dio bere historia osoko autogobernu mailarik handiena.
- Bakea ez da alderdikeriaz erabili daitekeen zerbait, bere kontura probetxu alderdikoia ateratzeko.

Aitzitik, bakea guztion askatasunera eta aurrerabidera garamatzan agertokia da. Horrexegatik, bakeak, eta normalizazio politikoak ere, hainbat gauza dakartzate berekin: askatasuna, berdintasuna, demokrazia eta herritartasun eskubidea. Eta horrek guztiak isla garbia du gure etorkizunari dagokionez.

## **2.1 BAKEA ASKATASUNA DA**

Lehenik eta behin, bakea askatasuna da, denok ozenki esan ahal izan dezagun zer pentsatzen dugun eta zer sentitzen dugun. Bere pentsamolde totalitarioarekin bat egiten ez dutenei terrorismoak dakarkien jazarpena desagertzeko. Gure kaleetako normaltasun giroa berriro sekulan ere ez inarrosteko. Inongo hautetsik, inongo herritarrik, mehatxuengatik eskolta eramatera behartua ez egoteko. Halako ideia jakin batzuk defendatzeagatik edo jarduera jakin batzuk egiteagatik inork heriotza mehatxupean edo estortsio ekonomikoaren edo bestelako xantaien mehatxupean biziñen ez jarraitzeko. Adierazpen askatasuna berreskuratzeko eta, azkenik, euskal gizartearen gehiengo batek oraindik ere politikaz mintzatzeaz duen beldurra alboratzeko.

## **2.2 BAKEA BERDINTASUNA DA**

Bakea ere berdintasuna da, bereziki lehen eta bigarren mailako herritarrik ez izatea ahalbidetzen duelako. Inork ere sekulan indarkeria erabil ez dezan herri eredu bat adostasunik gabe inposatzeko, Euskadiko herritarrek urtetan onetsi eta finkatutako marko juridikoek eta politikoek xedatzen dutena bazterrean utzita.

## **2.3 NORMALTASUNA DEMOKRAZIA DA**

Eta berdintasunetik, eta soilik berdintasunetik, eraiki daiteke eraiki daitekeenez herri normala, Europako Batasunaren parametroen araberakoa. Horregatik, gure egoera politikoa normaltzeak esan nahi du gure artean demokrazia eta herritarren arteko ituna ahalbidetu eta zabaltzea. Hasteko, horrek berekin dakar legeak, erakundeak eta askatasun sistemaren joko arauak aintzat hartu behar izatea; eta, era berean, berekin dakar bai legeria, bai eta legerian dauden lanabesak eta potentzialtasunak ere, era integratzailean erabiltzea: hori guztia, Euskadiko adostasun politikoa zabaltzeko.

Horrenbestez, normalizazioaren helburu nagusia elkar aditza berreskuratzea izango da, autogobernuaren etorkizunari buruzko akordio handia ahalbidetzeko asmoz, betiere berdintasun politikoan oinarriturik. Hori guztia, gure herriak egonkortasun eta aurrerabideko esparrua izan dezan, geroari konfiantza osoz heltzeko; eta, aldi berean, blokeen arteko enfrentamenduari behin betiko bukaera emateko. Horrek aukera emango baitigu, Euskadi, ez inoren kontra, baizik eta guztiion alde, guztiion elkarlanaz eta guztiok parte hartuta eraikitzen.

## **2.4 ALDEBAKARTASUNAREN PORROTA**

Ez dute inola ere bakea ekarri oinarri horiek ahaztu edo baztertu izanak eraginda -noiz eta garbiro urratu ez direnean- batzuek eta besteek egindako politikek, aitzitik baizik, enfrentamendu handiagoak sortu dituzte euskal politikan, bai eta inkomunikazio handiagoak ere.

Aski da Lizarrako akordioekin gertatutakoa gogoratzea, non nazionalista guztiekin, Ezker Batuak lagundurik, aldebakartasunaren eta beren arerioak politikoki baztertzearen aldeko bidea hartu zuten, eta denok jakin badakigu zeintzuk izan ziren horren ondorioak.

Beste horrenbeste esan daiteke Ibarretxe Planari gagozkiolarik. Baino, erantsi ere erantsi beharra dago akats berbera zutela Spainian zortzi urtez agintean egon zen Alderdi Popularrak liskarrerako eta elkarritzeta hausteko egin zituen politikek, hau da, aldebakarrak ziren eta baztertu egiten zuten aurrez aurre zegoen arerioa.

Zorionez, beste batzuok ez ginen erantzukizun berberetan erori, egin genitzakeen okerrak gorabehera. Izan ere, euskal sozialismoak tinko aurre egin zien politikatik Lizarrari eta Ibarretxe Planari eta, era berean, ez zuen bat egin PPren fronteen politikarekin. Gobernura iritsi bezain laster, fronteen politikari azkena ematearekin batera, sozialismoak berriz abiarazi zuen erakundeen arteko elkarritzketaren politika eta alderdien arteko adostasuna bilatzearen aldeko politika ere bai.

## 2.5 ADOSTASUNERA ITZULTZEA

Kontua ez da aurreko hori gogoratzea, ezta inori kontuak eskatzea ere. Besterik gabe, kontua da iraganeko okerrik ez egitea. Zorionez, estrategia horietatik, bakar batek ere ez du euskal gizartearen sostengua jaso.

Horrela, nahiz-eta gaur egun iragan horren ondorio batzuek oraindik irauten duten, akordioaren eta itunaren politika zabaltzen ari da. Horrela, lehenbizi nazionalismo erradikala izan zen, Anoetako Adierazpenaren bidez, zalantza guztiak gorabehera eta azken ondorioetaraino koherente izan gabe ere, akordio anitzen aldeko apustua egin zuena. Gero, azken hauteskunde autonomikoen emaitzen haritik, EAJk, bere azken agirian, Ajuria Eneaiko Itunaren oinarriak berrartu ditu, baina horrek ez dio Eusko Jaurlaritzari iraganeko jarrerak errepikatzeko joera eragotzi.

Euskal sozialismoari dagokionez, arestian gogoratu dugu gure ibilbidean etengabe ageri direla itunaren, aniztasunaren eta elkarritzketaren oinarriak.

Horrek aukera ematen digu mantendu dugun estrategia berresteko eta, aldi berean, elkar aditze politikorako itzulera hori are indar handiagoz bultzatzeko. Inoiz ez dugu behar bezainbeste azpimarratuko normalizazioaz mintzatzen garenean herritarren arteko akordioaz eta elkarbizitzaz mintzo garela. Adostasun bidera itzultzea ahalbidetuko duen akordioaz ari gara, gure herria eraikitzeo. Azken buruan, 1998tik hona egin denaren kontrakoa egitea, hain zuen ere. Izañ ere, urte horietan guztietan nazionalisten batasunari eman zaio lehentasuna euskal gizartearen batasunaren kaltetan. Horrexek fronteen politika ireki du eta politika horrek ezegonkortasun eta krisi iraunkorrean hondoratu gaitu.

Gure ustez, ordea, herria akordio bidez eraikitzea ez da bateragarri batzuek herria besteen gainean inposaketaren bidez eraiki nahi izatearekin, eskema zaharkituei jarraiki. Gure herrirako elkarbizitza proiektuak oinarrizko adostasunak behar ditu, alde bakarreko proiektuak behin betiko lurperatzeko – zorionez gaindituak- eta, aldi berean, sekulan galdu behar izan ez zen Euskadiko herritarren arteko ituna berreskuratzeko. Izañ ere, edo Euskadi guzion aranean eraikitzen da, desberdinen arteko akordiotik, edo Euskadik ez du etorkizunik izango.

## **2.6 ELKARBIZITZARAKO AKORDIOA**

Desberdinen arteko akordio hori formula baliagarri bakarra izango da, gure herriaren egonkortasuna eta Euskadiko herritarren arteko elkarbizitza demokratikoa ziurtatzeko, eta horiek ere izan beharko lukete euskal indar politiko guztiok izan beharko genituzkeen oinarrizko helburuak. Beraz, egiazko normalizazio prozesuaren helmuga ez da egin ezinak diren akordioetara iristea, zentzuzkoak diren akordioak lortzea baizik, betiere euskal gizartearen aniztasuna eta molde bateko zein besteko identitate-ezaugarriek gure politika eta elkarbizitza harremanetan duten pisua kontuan hartuta.

Beraz, PSE-EEk (PSOE) lortu asmo duen normalizazio politikoaren xedea ez da akordiorik egitea euskal alderdi politikook beti gure desberdintasunak mantentzen ditugun gai haietan, horiek nagusiki alderdien dotrinari lotutako gauzak direlako. Defendatzen dugun normalizazioaren xedea da denok partekatzeko moduko marko juridiko-politikoa eta elkarbizitza proiektua gure egiteko gauza izatea, betiere bereizten gaituzten desberdintasunak errespetatuta eta horiek ezabatu nahi izan gabe. Horrexegatik, hain zuen ere, defendatzen dugu alderdien arteko mahaia edo foroa, helburu horren zerbitzurako lanabesa delakoan.

### III

## ALDERDIEN MAHAIA

Horregatik, funtsezkoa da, halaber, denok aldarrikatzen dugun Mahai horren izaera eta helburuak argitzea. Gure iritziz, lanabes hori beharrezkoa da. Horrela jaso dugu gure agirietan aspalditik hona: bitarteko bat da, eta ez berezko xedea, ezta arazo guztiak konponduko dituen formula magikoa ere.

Mahaiak, hortaz, adostasunetan eta elkar aditzeetan oinarrituriko politika zabalagoetan txertatua egon beharko du eta, batez ere, denok partekatutako oinarri argietan funtsatua. Horra hemendik aurrera egin beharreko lana. Aurrez Alderdien Mahai horren izaeraz eta helburuez akordiorik ez badago, bide horrek porrot egingo du.

Beraz, horretan behar den denbora guztsia erabili beharko dugu eta alderdi bakoitzak bere jarrerak argi eta garbi agertu beharko ditu. Lehenago azaldu dugu Mahai horren izaeraz dugun ikuspegia, bai eta zeintzuk diren Gobernua/ETA Mahaiarekiko bere harremanak eta desberdintasunak ere. Orain, zehatzago garatuko ditugu funtsezkotzat jotzen ditugun oinarri politikoak, alderdien mahaiak etorkizuna izan dezan, bestelako xehetasunetan eta kontu teknikoetan sartu gabe. Oinarri politiko horiek alderdien arteko negoziazioaren emaitza izan beharko dute.

### 3.1 ERAKETA. BALDINTZAK ETA IZAERA

Aurreko ataletan argitu dugu Gobernua/ETAreن eta alderdien mahaiaaren arteko elkarrizketa esparruaren izaera desberdina. Orain, azken hori dugu solasgai. Era berean, argi utzi dugu alderdien mahaia eratuko bada, ezinbesteko baldintza dela edonolako bortxa edo indarkeria amaitzea, bai eta indarkeriaren aldeko sostengu oro ere. Hortaz, normalizazio politikorako prozesuak hasierako baldintza bat izan behar du, hots, indarkeriaren erabilera

edo haren aldeko sostengua iraunkorki amaitzea. Adostasunak zabaltzeko elkarritzeta politikoak bake hutsezko bideak behar ditu.

### **3.2 TAXUERA, OSAERA ETA JARDUNA**

Euskal sozialistok normalizazio politikorako bultzatu nahi dugun prozesuak oinarri izango du Euskadin dauden tradizio edo sentsibilitate politiko guztien arteko adostasuna, bere aniztasun politikoaren isla baitira. Horretarako, garrantzitsua da alderdien arteko foro horretan euskal sentsibilitate politiko guztiak egotea, eta indarkeria errefusatzea izango da baldintza bakarra, bide demokratiko hutsen erabileraren aldeko apustuarekin batera.

Alde horretatik, PSE-EErentzat, indarkeriarik gabeko edo haren aldeko sostengu politikorik ez dagoen jokalekuan, eta indar guztiak lege barrenean jokatuta, ez da arrazoi politikorik izango inork bere burua normalizazio politikorako prozesutik kanpo uzteko edo inor prozesu horretatik kanporatzeko. Alderdi guztiak dute beren ekarpenak egin eta defendatzeko eskubidea, baina baita obligazio morala ere.

### **3.3 BARNEKO ETA KANPOKO BERMEA**

Alderdi arteko mahaia eratuko bada, funtsezkoa da ados jartzea bere jardunaren osagai izan behar duten bermeei buruz. Bere helburua baldin bada akordioak behar hainbateko adostasunez lortzea, zentzuzkoa da pentsatzea aurrez bere jardunari buruzko adostasuna egon behar dela. Orobak, hasieratik beretik argi eta garbi gelditu behar du alderdien mahaiaik ezin duela kanpoko baldintzen mendean egon, baldintza hori edozein izanik ere, barne delarik - talde terroristari eragiten dizkioten kontuak ebazteko xedezi- Gobernuaren eta ETaren arteko balizko elkarritzeta baten garapena.

### **3.4 HELBURUAK. AURREBALDINTZARIK EZ**

Iraganeko fronte-politikaren ondorioz, alderdi nazionalistek maiz aurrebaldintzak eskatzen dituzte, mahaia eratzeko: lurraldetasunari buruzko akordioa, erabakitzeko eskubidea aintzat hartzea, etab. Planteamendu horrek ez garamatza inora ere. Sozialistok ez ditugu inoiz baldintza horiek onartuko, mahaikide izateko. Geure planteamenduak eraman eta Konstituzioa eta Estatutua defendatuko ditugu. Gainerako alderdi politikoek ere mahaira joan beharko dute beren jarrerak defendatzera, baina inolako inposaketarik gabe. Kontrakoa bailitzateke irekitzen den prozesu politikoa ezertxo ere ez ulertzea.

### **3.5 EMAITZAK. ADOSTASUNA ETA ONESPENA**

Lan metodoari dagokionez, adostasuna da normalizazio politikorako prozesuaren funtsezko oinarrietako bat. Alde horretatik, Euskadiko normalizazio politikoak oinari zabaleko adostasunak behar ditu gizartearen. Adostasuna prozesuaren bi faseetan bermatu beharra dago: Mahaiaaren beraren joko arauak, bere osaera, mahaiburua eta abar ezartzekoan, baina baita mahai gainean jarriko diren gaiak ebazterakoan ere: beraz, adostasuna ere ebaZenaren fasean.

Ildo horretan, aurreko atalean aipatu den bezalaxe, akordioak ere adostasunaren oinariari jarraiki hartu behar dira. Gure esparru juridiko eta politikoaren etorkizuna ahalik eta adostasunik handienaz erabaki beharko dugu; eta adostasun horrek gizartearen oinari zabala duen onesprena izan eta islatu beharko du, gehiengo politiko zabalaren onesprena, gehiengo zabalarena, gehiengo kualifikatuarena. Arestian esan dugunez, halako gehiengorik ez dute lortzen Euskadin sustraitutako bi sentsibilitate politiko handietan dauden taldeek, ez batzuek, ez besteek.

Hau da, gehiengoaren oinariak ez du akordioak hartzeko balio. Akordio horrek legeria arrunterako balio du, baina ez Euskadiko herritarren elkarbizitza

arautuko duten oinarriak onesteko. Ez da inongo akordiorik posible izango bi sentsibilitate politiko handietako ordezkariek hari onespena ematen ez badiote. Horrek erabateko aldaketa eskatzen du Euskadiko kultura politikoan. Gure ibilbidean, euskal sozialistok eskuzabaltasun handiz jokatu dugu adostasunak lortzerakoan. Euskadiren interes orokorra, bere normalizazio politikoa eta herritarren elkarbizitza jarri ditugu beti aurretik, eta inola ere ez interes sektorialik edo alderdikoirik. Euskal sozialistok geure buruari jarriko diogun jokabide araua da hori eta besteei ere eskatuko diegu.

### **3.6 APLIKAZIOA. ITUNA ETA LEGEZKOTASUNA**

Prozesu hau abiarazterakoan, argi geratu behar da ez diogula hutsetik ekiten. Ez garela linbo politiko eta instituzionalean bizi. Aintzat hartu beharra dago erabaki esparru zabalagoetan partaide garela –Espainia eta Europa- eta badirela errespetatu beharreko antolamendu juridiko bat eta erakunde batzuk.

Neurri politikoak eta juridikoak lortzen bideratutako konpromisoa ezarri beharko du Alderdien Mahaia, erabakitakoak indarra har dezan. Erabakitako gaiek Estatuaren eskumenak ukitzen dituztenean, itun bidezko mekanismoak ezarriko dira Mahaian erabakitakoa estatuko legeriara egokitzea eta bateragarri egiteko. Horrek itundutakoaren egonkortasuna bermatuko du eta legezkotasunaren printzipioa ere bai.

## **IV**

### **AZKEN GOGOETAK. EGIAZKO POLITIKA**

Behin Alderdien Mahaiak akordio politikorako izan behar dituen oinarriak azalduta, euskal sozialistok azken gogoeta batzuk ekarri nahi ditugu Euskadin irekitzen den prozesu osoari buruz.

Arestian esan dugu Mahaia ez dela formula magiko bat, ezta politika baldintzatzen duten gainerako faktoreetatik kanpo dagoen osagaia ere. Bada, horren guztiaren mendean egongo da Mahaiaren lanen arrakasta eta prozesu osoa ere bai.

#### **4.1 BIDE LUZEA ETA ZAILA**

Gehiegizko baikortasuna eta neurri gabeko esperantzak ez dira heldu zaigun etorkizunari begiratzeko modurik hoherena. Era berean, ez du laguntzen berehalako emaitzetan eta behin betiko akordioetan pentsatzeak. Prozesua luzea eta zaila izango baita. Komeni da hori kontuan hartzea, baina ez egoera guztiatarako balio duen topiko gisa, aferari errealsizmoz eta eraginkortasunez ekiteko formula gisa baizik.

Egun batetik bestera ez dira iraganeko inertziak desagertuko. Ezta enfrentamenduak eta izandako krisiak sorrarazitako ondorioak ere, eta mesfidantzak eta desadostasunak ere ez.

Horrek guztiak denbora luzea beharko du eta zuhurtasun politiko handia ere bai. Alde horretatik, amaiera onarentzat oztopo izango da bai aurrez ezarritako epeak planteatzea bai prozesua hauteskunde egutegiko kalkuluetarako erabiltzea. Euskadiko herritarrok badugu joera gure iragana epe mugagabeetan datatzeko. Hori ikusita, ez genuke alderantzizko neurria etorkizunerako aplikatu beharko. Esaten da arazoak aspalditik datozaela, beraz konponbideek ere denbora luzea beharko dute.

#### **4.2 IRAGANEKO MESFIDANTZAK ETA ZATIKETAK GAINDITZEA**

Beste alde batetik, sentsibilitate politikoen arteko adostasunak eta akordioak soilik posible izango dira, lehenik, iraganean sortutako mesfidantzak eta zatiketak gainditzen badira; eta, era berean, biktimei eta kaltetu nagusiei pairatzen dituzten bidegabekeriak eta sufrimenduak ordaintzen bazaizkie. Adostasunak landu eta elkarrizketa bidezko akordioak bilatzen diren bitartean,

erakunde, talde politiko eta gizarte eragile guztiak behar diren neurriak sustatuko dituzte biktimek jasan dutena ordaintzeko, bai eta konfiantza, bake eta askatasun giroa sorrarazteko ere. Halakorik gabe ez da ezer egiterik izango.

#### **4.3 PRAGMATISMOA ETA DORTINA-OINARRIAK**

Beraz, denboraren joana eta iraganeko mesfidantzak nahiz zatiketak gainditzea dira lan luze eta zailari ekiteko baldintzak. Baino, era berean, beharrezkoa da eta komeni da argi bereiztea alderdi bakoitzaren doctrina-oinarriak eta guztientzako politika bateragarriak.

Politika aro gatazkatsutik gatoz, alderdi guztiak saiatu baitira beren printzipio ideologikoei irmo atxikitzen, askotan modu erradikalean planteatu dituztenak. Beraz, porroterako bide segurua izango da elkarritzetara dotrinaz zamaturik joatea, eta norberaren dotrinak garaile aterarazten ahalegintza.

Esperientziak irakatsi digu doctrinei buruz ez dagoela traturik, edo zaila dela tratua egitea. Tratua politiketan egiten da. Inork ez dio bere dotrinari uko egin behar, baina elkarritzetara joaten da formula edo konponbide politiko zehatzei buruz hitz egitera. Hobe da zentzuzko helburuak planteatzea -lortzeko moduko helburuak planteatzea- eta ez emaitza idealik edo lortezinik. Apaltasunez jokatu beharko da eta pragmatismo nahiz errealsimo handiz ere bai.

#### **4.4 ERANTZUKIZUNA ETA AUKERA UZTARTZEA**

Bada beste eragozpen bat elkarritzeta politikorako eta Mahaian lortu beharreko akordioetarako. Hauxe litzateke: egoera berria erreklamazio, eskubide eta aukera hutserako erabiltzea. Horrelako asko izan da iraganean. Eta, orain ere, oso erraza da horrelakoak antzematea, erabiltzen diren hitzei erreparatze hutsarekin.

Beharbada, beste esamolde batzuetara ohitzen hasteko unea ere iritsi da. Eskubideak eta betebeharrak, erreklamazioak eta ekarpenak, aukerak eta erantzukizunak uztartzea. Une honetan, hain zuzen ere kezka nagusia izan beharko litzateke erantzukizun handiaren aurrean egotea. Gure etorkizuna interferentziarik gabe erabakitzea adosten badugu, joko arauak errespetatuz egin behar dugu eta, aldi berean, onartu funtsean geure mendean dagoela gertatzen denaren erantzukizuna, arrakastaren edo porrotaren gaineko erantzukizuna, alegia. Gero, ez da zilegi izango berriro besteei erruak egoztea.

Hortaz, aferari heltzeko modurik hoherena da politika erantzukizunez egitea. Erantzukizunaren irizpide berbera erabili beharko litzateke lor daitezkeen akordio edo emaitzetan eta, horrez gain, irizpide hauek ere bai: zuhurtasuna, errealismoa eta pragmatismoa. Gure eta besteen esperientzia politikoak adibide ugari eman dizkigu horrela egiten ez denean gertatzen denari buruz, hau da, zer gertatzen den erabaki bat hartzen bada, jakinik onetsi behar duenak ezin duela asumitu. Halakoetan, norberaren erantzukizuna uxatu eta dena besteen erantzukizunaren esku uzten da. Horrela jokatuta, inork ez du irabazten, eta ondorioak begi bistakoak dira. Guztiontzako ikasbide izan beharko litzateke eta alderantzizko filosofia aplikatu.

#### **4.5 EUSKADIKO HERRITARRAK ETA ESPAINIA**

Mentalitatean egin beharra dagoen aldaketa hori ez dagokie soilik euskal gizarteari eta politikari. Izan ere, Spainiako politikak, oro har, bestelako begirada bota beharko lioke Euskadin zabaldutako prozesuari.

Espainiak ez du Euskadin gertatzen dena ikusi behar datozen urteotan aurre egin beharko zaion arazo berri eta ikaragarria balitz bezala. Eta ez du horrela ikusiko, baldin eta erantzukizunez jokatzen badugu, lehenago eskatu dugun bezala. Euskadiko herritarrentzako erantzukizuna baldin bada, Spainiarako aukera bat izan beharko du.

Aukera, azken finean, trantsiziotik moldatu gabe atera zen kontuetako bat konpontzeko. Egia da askotan euskaltasuna gatazkari lotua bizi izan dutela. Horra azken urteak horren erakusgarri. Baino egia ere bada, historiako une askotan euskaltasuna eredu gisa ikusi dutela eta ekarpen erabakigarri gisa Estatu osoaren egonkortasunerako. Baliteke antzeko ziklo bat bizitzeko bezperetan egotea.

Horrela bada, Euskadin gertatzen dena ez da ohiko liskarrei eransteko moduko gatazka bat izango, beste arazo batzuk leuntzen lagundu dezakeen konponbidea baizik. Espainiak sufritu egin du orain arte euskal zauriagatik. Horrek indarra kendu dio gure demokraziari eta kontu asko konpontzea ere eragotzi egin du, adibidez lurraldetasunarena. Euskal zauririk gabe, ziurrenik, ezer ez da berdina izango Spainian. Gaur egun, arazo gisa ikusten diren kontu berberekin ez dute izango egun daukaten gatazka zama hori. Aberriaren izena etengabe erabiltzen dutenek ez lukete horrelakorik ahaztu behar.

#### **4.6 EGIAZKO POLITIKA**

Inork eta ezerk ezin digu bermatu hori guztia horrela izatea. Egiten dugunaren edo ez dugunaren mendean egongo da. Amaiera zoriontsua ez dago ziurtatua. Gogoeta batzuk plazaratu ditugu, amaiera zoriontsu hori sustatzeko, sakontasun handitan sartu nahi izan gabe.

Ezer gehiago gehitzekotan, gogoeta hau erantsiko genuke: politika handia egiteko garaia da eta balio handiagoa eman behar zaio elkarbizitzarako politikaren eginkizunari. Eta, era berean, balio handiagoa eman behar zaio zuzenbideari, baketzearen lanabesa baita.

Alde horretatik, euskal iraganak tradizio handi-handia du horretarako, bai eta behar-beharrezkoa dugun ekarpena ere. Bada, hori guztia baliatu behar dugu. Horrela, ohikoa izan da gure gaitzak konpondu nahi izatea beste leku batzuetako esperientziak eta ereduak erabilita. Askorentzat, lortu beharreko idealak litzateke horrelakoak Euskadin aplikatzea. Baino, koherenteagoa eta erabilgarriagoa da gure esperientziari berari begiratzea. Gure herrian ez dira gatazkak arrotz, baina, horrexegatik hain zuen ere, behartuak gaude konponbideak bilatzen. Gure tradizio hoberenaren ezaugarriak ere dira itunaren kultura, konpromisoaren filosofia eta negoziazioaren aldeko jarrera.

Gainera, baditugu balio juridiko positiboa duten berezitasun eta ezaugarri sustraituak, antolamendu juridikoan aintzat hartuak daudelako. Beraz, gure eskura lanabes asko ditugu. Erokeria hutsa litzateke tresna horiek alferrik galtzen uztea.

Politikaren eginkizuna da baliabide horiek guztiak zentzu onez erabiltzea, gure nahiak moldeatzeko eta mahai gainean dugun aro berriari aurre egiteko. Legeei, esparruei eta besteei erruak egoztea ezin da izan gure erantzukizunak gure gainetik kentzeko ihesbidea. Besteek gure erabakiak errespeta ditzatela aldarrakatzen badugu, gu ere behartuak gaude erabakitakoagatik dagokigun erantzukizuna gure gain hartzera.